# GAZTEDI TXIKIKO KANPAMENTUA: 40 URTE

Gaztedi Txiki



Aurten Gaztedi Txikiko kanpamentuak 40 urte bete ditu. Bertatik Errenteria eta inguruko 4.000 gazte pasa dira eta 400 pertsonak musutruk lan egin izan dute. 40 urte hauetan guztietan bizi izandakoa laburtzea zaila da, are gehiago norberaren bizipen eta sentipenak azaleratzea, baina guztion ezaugarri amankomuna, guztiok batzen gaituena da udara lagun artean pasatzea, lagun berriak egitea, Quintanar de la Sierrako paraje zoragarrian gozatu nahi izatea. 40 urte igaro dira, baina betiko baloreek dihardute. Ondoko lerroetan *kanpatik* igarotako zenbait pertsonaren testigantza jaso dugu, topa dezagun hainbeste urtetan elkartu izan gaituena.



Begiraleak izan dira biak kanpamentuan, Moriones aita-semeak. Ondoko lerroetan bakoitzak *kanpa* nola bizi izan duen kontatuko digute.



***Xanti Moriones***

*Oraindik gogoratzen naiz nire lehenengo kanpamentuaz, BUP 1.a bukatzean... Nire lehenengo bizipena etxetik kanpo lo egiten, eta gainera kanping denda batean... A zer oroitzapenak! Lagun berriak egiteko aukera, koadrilakoak hor zeuden ondo pasatzeko, neskak ligatzeko, finean, zer gehiago eska daiteke 14 urte edukitzean... Eta hori dena inguru zoragarri berri batean, pinudien erdian, ibaia eta presa ondoan, naturaz inguratuta goiz-goizetik ilundu arte, eta gauak, a zer gauak, izarrez beteta eta esne-bidea ikusten...*



*Lehenengo bizipen horiek ahaztu ezinak dira zalantzarik gabe, horren onak izan ziren, adinagatik joateari utzi behar izan nionean, begirale izatea erabaki nuela edo genuela koadrilako lagun dezentek (zazpi edo zortzik...). Hasi ginen "tiempo libreko" begiraleak izaten asteburuetan, eta bitartean, begirale ikastaroa egiten, titulua lortzeko, kanpamentura joateko asmoa genuen eta (araudia ere bete behar baitzen).*

*Egia esanda, orain bizipen horiek gogoratzean, ezin dut ahaztu eta ez dugu ahaztu behar, hori dena posible izan zela pertsona batzuen inplikazio eta lanagatik. Egungo garaietan, agian modaz pasata egongo da, baina Fatimako parrokiari esker eta bertan zeuden apaiz batzuei esker kanpamentua martxan jarri zen eta urtero ateratzen zen aurrera. Gure garaiko ume eta begirale guztiei galdetuko bagenie, apaiz baten izena aipatuko lukete denek: Felipe Mujika, hain zuzen.*

*Felipe izan zen lehenengo garaiko kanpamentuaren "alma materra", denaz arduratzen zen, antolaketa guztia bere gain zegoen: baimenak lortzea, hornitzaileak aukeratzea eta beraiekin negoziatzea, begiraleen tituluak, kanpamentuaren azpiegiturak, sukaldea, jangela, dendak... Berari eta beste boluntario askori esker –sukaldariak, muntaiako kideak, nola ez begirale guztiei ezker–, Quintanarreko kanpa mantendu da 40 urtez, gure herriko neska-mutilen gozamenerako, ondo pasatzeko, eta balio batzuen transmisiorako: konpromisoa, natura, laguntasuna eta berdintasuna, kasu batzuetan bigarren eta hirugarren*

> Nire lehenengo bizipena etxetik kanpo lo egiten, eta gainera kanping denda batean... A zer oroitzapenak!

> Atzean geratu dira aitzur eta paperarekin eginiko basoko txangoak, kanpamen-duaren gune zaharra, presa bera, gauko suak, hasierako hamalau egunak eta bidez batez, baita iganderoko mezaren ohitura. ”

*generazioek parte hartu dute eta parte hartzen ari dira;batzuk arduradun gisa ere bai.*

*Datu batzuk aipatze arren, 40 urte hauetan, 4.000 ume eta gaztek parte hartu dute* kanpan, *txikien edo handien txandetan, eta 400 boluntariok lan egin dugu hori dena aurrera ateratzeko... Egia esanda, azpiegituretan, tokian, zerbitzuetan, eta antolaketan oro har, aldatu egin dira gauzak, baina izaera eta balioak ez dira galdu, eta bizirik daude, gutxienez 50 urte bete arte.*

***Unai Moriones***

*Egia da, bai,* kanpan *hamaika gauza aldatu direla lehen belaunaldietatik, baina honek ez du esan nahi berezko izaera galdu duenik. Egun ere herriko belaunaldi berriek badute non elkar topatu udarari ekiteko, askatasunean, gure herriko eguneroko zurrumurrutik at. Bertako pinudietan belaunaldi ezberdinek elkar ezagutzen dute, batzuetan lehenengoz, eta bestetan aski ezagunak direnen arteko harremanak sendotuz. Norbanako bakoitzak, egonaldien ostean bere bideari jarraitzen badio ere, beti geratuko zaizkigu lagunarteko solasaldietan noizean behin irteten diren "gogoan duzue gure lehen kanpa handi hartan..." eta bestelakoak. Haur eta gazte garaiak igaroak ditugunontzat oroitzapen gozo horiek baino ez zaizkigu geratzen. Baina oraindik ere, oroitzapen bihurtzen diren bizipen horien sortze makinariak martxan dirau. Esan bezala, aldaketa asko antzeman ahalko baititu behinola* kanpako *gazte izandakoak Quintanar de la Sierrara berriro hurbiltzea erabakiz gero. Atzean geratu dira aitzur eta paperarekin eginiko basoko txangoak, kanpamentuaren gune zaharra, presa bera, gauko suak, hasierako hamalau egunak eta bidez batez, baita iganderoko mezaren ohitura. Txoko honek bizirik irautea bermatzeko asmoz ordezkatu dira joera batzuk, legedia zurrun xamar jarri baita azken urteotan. Aurrera egin edo bidean geratu zen gakoa. Bizi baino biziago gaudelako eman dugu aurrera pausoa, guk bizitakoak etorkizunean bizi ahal izatea nahi dugulako. Horretarako heldu dira komun lehorrak, errekatik ponpaturiko urezko dutxak eta egonaldian behin eginiko gogoeta*



*saioak, jendartean pil-pilean dauden aferen inguruan. Aldaketak aldaketa,* kanparen *ezaugarri bereizleen artean bi azpimarratu behar direlakoan nago. Lehena, tokia bera da. Uneoro naturarekin harremanean egotearen xarma, kaminataz kaminata ingurua gero eta hobeto ezagutzekoarena, eta urtetik urtera Laguna Negra, Lagunas de Neila, Picos de Urbion eta beste hainbatez gozatzearena. Eta bigarrena, begirale taldea da. Bertan jarduteak ez du parekorik. Zailak dira topatzen laguntasuna abiapuntu izanda lan egiteko lan aukerak. Ez da sekula etekin ekonomikorik topatu, ezta bilatu ere, izan ere, bizi izan ditugunak bizitzeko aukera eskaintzea beste asmorik ez dugu izan gaur egun arte. Eta hala jarrai dezan, topa egin dezagun istorio honen parte izan diren guztiengatik eta posible egiten duten guztiengatik.*

## Olatz Miranda

*Kanpak* bizipen ederrak eman dizkit, gerora bizitakoek ere jatorria *kanpan* izan dute neurri handi batean. Quintanarren ikusi ditudan gauzarik ederrenak, kanpoan lurrean etzaten gineneko zeru izartsuak. *Kanpak* eskaini dizkit lagun arteko elkarbizitzako harreman sakonak eta helduekin konfiantzazko uneak. *Kanpak* eman dizkit ibilaldi luzeak, lagun artekoak, gogorrak eta aldi berean ederrak. Bizitzan izan ditudan bizipen garrantzitsu eta esanguratsu asko bizi izan ditut *KANPAN*.

## Luis Elizetxea

40. urteurrena dela eta, *kanpari* buruz idaztea nostalgian murgiltzea da, haurtzarora eta gaztarora itzultzea. Horregatik, Eñaut Elorrietaren ahotsa aukeratu dut girotzeko, “begiratu atzean…” dioen unea, hain zuzen ere. Horixe egin dut, atzean begiratu, alegia, eta niri ere *kanpan* parte hartu dugunok itsaso bat osatzen dugula iruditzen zait. Hamaika malkok betetako itsasoa da *kanpa*; zoriontasun-malkoak lagun sendoak egin genituenean, malko hunkigarriak elkar agurtzeko orduan, etsipen-malkoak lehen desamodioen aurrean, algara-malkoak barrez lehertzen ginen momentu dibertigarrietan… Eta, irudimenarekin jolasean, gure presa, Laguna Negra eta Playa Pita guk denok isuritako tantez osatuta direlakoan nago.

## Xabier Amilibia

*Kanpa* momentu txarretan habia baten antzera lagundu eta zaintzen zaituen tokia da, familia handi bat balitz bezala, guretzat *piña* handi bat dena. Momentu onetan berriz, une polit haiek, pozez eta alaitasunez beteak daudenak, materializatu egiten dira zure adiskideekin sortzen diren binkulu eta harreman berezi horiekin, gainera, harreman horiek hamar egun igaro ondoren herrira itzultzean, gertu izango dituzun adiskide ezin hobeak izaten jarraituko dute, eta horrela ez bada ere, beti edukiko dituzue oroimenean bizipen eta une eder haiek.

# 40 AÑOS DEL *KANPA* DE QUINTANAR



Arturo Pérez de Gállego

Hace ya mucho tiempo que tengo por costumbre dar con mis huesos en un paraje burgalés rodeado de pinos, rodeado de buena gente y…

Fluyen las aguas del tiempo y, poco a poco van lavando la superficie de mi memoria, tan lentamente, casi a gatas, que no percibo que los detalles se van perdiendo. Gracias a Dios son tantos los recuerdos que todavía puedo encogerme en un tenue rincón de mi memoria y disfrutar de aquellos paseos a la orilla del río, entre pinos. A lo lejos un motor se afana en llenar de agua un aljibe para que…

- *¡Un silbato! ¡Por Dios, otra vez llego tarde!*

En el almacén con una algarabía de chavales montando guardia a la puerta unos monitores se afanan en dar los últimos retoques a la programación de la tarde. Mientras tanto, en la cocina, un par de pucheros intentan vanamente ocultar los secretos de una cena con la inestimable ayuda de dos cocineras que, armadas con cucharones, defienden su castillo. Es más una pose que una realidad. En el fondo, es una guerra perdida.



> Ahora con la visión del que tiene muchos años sobre la espalda vuelvo la vista atrás y me sorprende cuán decisiva fue para mí aquella primera vez. Recuerdo aquel momento y lo poco, o nada, consciente que era de lo trascendente que sería para mí ese día.

Aquí y allá, corretean ellos y ellas. Otros, indiferentes, los observan por el rabillo del ojo mientras entre sus manos se barajan nerviosas unas cartas.

- *El que pierda pasa por debajo de la mesa… Espeta rabiosamente uno de ellos. No en vano, sufrió dicha humillación cuando, con menos suerte, saboreó el amargo regusto de la derrota.*

Mientras el bullicio del campamento entretiene a un par de jóvenes que conversan a la sombra de un pino, a lo lejos, se adivina una cuadrilla trabajando en la orilla del río. En sus manos unas piedras transportadas se van colocando cuidadosamente en un lateral formando algo similar a una pared, sus pies entumecidos por el agua se mueven prestos de un sitio a otro, ágiles como ardillas. Sin descanso mueven grandes piedras, trabajo de titanes. O… ¡Tal vez no tanto!

Corro descalzo por la hierba, siento las punzadas de las piñas que inexorablemente intentan detener mi marcha, pero llego tarde. Ese último repecho y llego a las primeras tiendas. Unos metros más allá, un grupo de monitoras comienza a repartir los primeros bocadillos ante un desorganizado intento de formar una fila. Cogería un bocadillo, pero… ¡Cualquiera se cuela!

**2**

Amanece un día frío, engañoso como todos. Como en un sueño pasan las primeras horas del día, entre bostezos y tumbos, medio acostado sobre una inestable mesa, una tabla sobre caballetes. Entre los dedos un trozo de pan con mantequilla baila nervioso… El sol asciende lentamente por las ramas de los pinos colando breves destellos entre sus finas hojas hasta asomarse a sus copas. Empieza a hacer calor, mucho calor.

Al fondo del almacén, un grupo de personas se dispone rápidamente a ordenar los bultos, mochilas, bolsas, bocadillos, fruta, chocolate…

- *Al final siempre falta algo, murmura entre dientes alguien que pasa por mi costado.*

En mitad de un claro que se abre entre los pinos del bosque un nutrido grupo de chavales equipados con toda suerte de mochilas, esterillas y otros bártulos deambula nervioso de un lado para otro esperando el momento de comenzar la caminata. Son momentos de duda acerca de las fuerzas de cada cual, son momentos en los que nuestra propia naturaleza de carácter gandul y cansino nos hace pensar: ¿Qué necesidad tengo yo de esto?



Un paso tras otro se va haciendo camino, como diría el poeta. O algo parecido, al menos. No son los primeros pasos los que preocupan al abigarrado grupo, ahora, al comienzo todo parece más fácil.

¡Cuántos recuerdos y vivencias de esas caminatas! Es cierto que cuando vuelves la vista atrás y rememoras cualquier tiempo pasado lo que prima son los buenos momentos. O por lo menos así lo vivo yo que sólo guardo excelentes recuerdos de esos días. ¡Incluso cuando nevó en pleno mes de julio!

***3***

Han pasado ya algunos años desde que, por primera vez, me acerqué al campamento. Ahora con la visión del que tiene muchos años sobre la espalda vuelvo la vista atrás y me sorprende cuán decisiva fue para mí aquella primera vez. Recuerdo aquel momento y lo poco, o nada, consciente que era de lo trascendente que sería para mí ese día.

He hecho amigos, muchos amigos. He conocido a mucha gente, buena gente. Algunos continúan todavía conmigo. Otros, por las vueltas que da la vida, ya no están junto a mí.

Algunos, gracias a Dios los menos, se han ido y no volverán. Para ellos guardo un rinconcito en lo más profundo de mi corazón, allí donde guardo los recuerdos con más cariño. Donde quiera que estéis, mi más sentido abrazo.

Otros, andan otros caminos que, de momento, nos alejan, pero tengo la esperanza de que la vida, que da muchas vueltas, dé un giro inesperado y un buen día al dar la vuelta a la esquina me los encuentre otra vez y, quién sabe, a lo mejor, podamos otra vez recordar aquellos tiempos en los que éramos... ¿Felices? ¿Jóvenes? ¡Buenos amigos!

De entre todos, hay un grupito de elegidos a los que agradezco que me dejen llamarles amigos. Ellos compartieron conmigo muchos momentos entre esos pinos, en las carreras de los juegos, en la presa de frías aguas, en tantas y tantas actividades a lo largo de los años...

Ahora, que todavía me acerco al campamento, puedo comprobar, no sin cierta nostalgia, que no están mis amigos... ¡Pero sí sus hijos! Quisiera poder llamarles amigos, pero... ¡Ya soy un viejo!

***4***

Tal vez, todo esto, no ocurriera así, o no el mismo día, o... No en el mismo sitio, pero lo que queda no tiene detalles, pulidos por el paso del tiempo, por esa agua que fluye...



